



SDEIBAR

# INFORMAZIO EZ-FINANTZA- RIOAREN EGOERA-TXOSTENA

19/20 DENBORALDIA



# AURKIBIDEA

## **0. PRESIDENTEAREN GUTUNA**

### **1. TXOSTEN HONI BURUZ**

### **2. MATERIALTASUNAREN AZTERKETA**

2.a. Interes-taldeak

2.b. Azterketa

### **3. NEGOZIO-EREDUA**

3.a. Erakundearen profila

3.b. Egitura eta organigrama

3.c. Balioak - Helburuak - Estrategia

3.d. Arriskuen kudeaketa

3.e. Negozio-zifrak

### **4. PERTSONEN KUDEAKETA**

4.a. Enplegua

4.b. Ordainsari-mota

4.c. Lanaren antolakuntza

4.d. Prestakuntza eta karrera-plana

4.e. Gizarte-harremanak

4.f. Berdintasuna

4.g. Segurtasuna eta osasuna

### **5. BARNE-KONTROLA ETA OSOTASUN KORPORATIBOA**

5.a. Compliance

5.b. Kode etikoa

5.c. Ustelkeriaren eta eroskeriaren  
aurkako protokoloa

5.d. Kanal etikoa

5.e. Gardentasuna

5.f. Giza-eskubideak

### **6. INGURUMEN-POLITIKA**

6.a. Ingurumen-inpaktoak eta  
horiek kudeaketa

6.b. Ingurumen plana -  
Etorkizuneko konpromisoa

6.c. Ingurumen-legeriaren betekizuna

### **7. HORNITZAILEAK ETA AZPI-KONTRATISTAK**

7.a. Hornitzaileak

7.b. Tokiko garapena erraztea

### **8. BEZEROAK ETA KONTSUMITZAILEAK**

8.a. Komunikazio-kanalak

8.b. Datuak babesteko politikak

8.c. Ziurtagiriak

### **9. GIZARTE-POLITIKAK**

9.a. Fundazioa

9.b. Proiektu nagusiak

9.c. Ekarpena Garapen Jasangarriaren Helburuei

### **10. INFORMAZIO FISKALA**

### **11. GRI ERREFERENTZIA GURUTZATUAK**





# 0. PRESIDENTEA- REN GUTUNA



SDEIBAR

## 0. Presidentearen gutuna

### Akziodun agurgarriak,

Sociedad Deportiva Eibarrek bere 80 urteurrena ospatzen du 2020 urtean. 80 urte hauetan futbol maila guztiak ezagutu ditugu, eta zortzi hamarkada hauetan klubaren parte izan diren pertsona guztiei esker iritsi da Eibar gaur egun dena izatera.

80 urteurrena ospatzen dugun honetan finantza arloarekin lotuta ez dagoen informazio txostena argitaratzea egokia iruditu zaigu. Bertan, Sociedad Deportiva Eibarren eta SD Eibar Fundazioaren balantze sakona egiten dugu, transparentzia osoz, batez ere ingurumen eta giza esparruak aintzat hartuta.

Harro gaude gure lehen talde biak, gizonezkoen lehen taldea eta emakumezkoena, maila gorenetan

daudelako, horrek futbolarekin lotuta ez dauden beste jarduera batzuetan murgiltzea bermatzen digulako. Eibarrek 27.000 biztanle baino ez ditu, eta Europako lehiaketa nagusietan ez da gure modukorik, ez da herririk hain populazio txikiarekin bere lehen talde biak goi mailan lehiatzen dituenik.

SD Eibar futbola baino askoz gehiago da. Eskualdeko ekonomia bultzatzen dugu, gure jardunari esker enplegu zuzena zein zeharkakoa sortuz. Gizonezkoen lehen taldea Lehen Mailan dagoenetik, eta azken sei urte hauetan, 100 milioi euro baino gehiago utzi ditugu diru-kutxa publikoan.

Era berean, Eibarren izenak dimentsio handiagoa lortu du azken urteotan, munduko txapelketa onenaren parte izateak herrialde ezberdin askotara iristeko aukera ematen digulako, gure hiria lehen planoan jarritz.

Egun Klubak 23 talde ditu, 500tik gora futbolari eta ehun prestatzaile inguru. Estruktura sendoa dugu, urtetik urtera hazten doana. Berebiziko garrantzia ematen diogu formakuntzari, batez ere gure harrobiko kirolarien balioak lehenetsiz. Hala, Gure Balioak Eraikitzen proiektua abian jarri genuen orain urte batzuk, errespetua, konpromisoa, disziplina, umiltasuna, solidaritatea eta zintzotasuna landuz.

SD Eibar Fundazioa Klubaren zutarrietako bat da. Izan ere, fundazioaren bitartez beste pertsona, kirolari, klub eta bestelako erakundeei gure laguntza ematen diegu. Robotika ikastaroak eta enplegua lortzeko tailerrak antolatzen ditugu, adibidez, eta kirolariak zein herriko klubak diruz laguntzen ditugu. Gobernuz Kanpoko Erakundeekin ere ekintza solidarioak antolatzen ditugu, guzti-guztia gizarte hobeago bat lortzeko ahalegin horretan.



Sociedad Deportiva Eibarren zintzotasuna bermatzeko barne kontrol araudi zorrotza dugu. Compliance-aren bitartez klubeko edozein partaidek zein gurekin lan egiten duten bestelako elkarteek legez kontrako jarrerik izan ez dezaten bermatzen dugu. Horrez gain, kode-etikoa ere badugu, non zintzotasuna, zuzentasuna, transparentzia eta etika, joko garbia, korrupzioarekin tolerantzia eza, akosoa, diskriminazioa, arrazismoa eta bestelako jarrerarik gerta ez daitezen kontrolatzen dugu.

Denbora honetan Klubak hainbat agiri lortu ditu, hala nola ISO 9001:2005, kalitatearen kudeaketa bermatzen duena, ISO 37001:2016, eroskeriaren aurkako kudeaketa sistema, edota UNE19601:2017, compliance penalari buruzko kudeaketa sistema.

Ingurumenari dagokionez, jasangarritasuna bermatzeko Plan Estrategikoa lantzen hasi da SD Eibar, hiru arlo nagusi kontutan izanda: karbonoaren arrastoaren

konpentsazioa, Ipuruako estadioan hondakinen bilketa eta energiaren eraginkortasun sistema, eta etorkizuneko Kirol Hiriaren garapena.

# 1. TXOSTEN HONI BURUZ

Informazio ez-finantzarioko egoerei (IEFE) buruzko Memoria honek SD Eibarrek 2019ko uztailaren 1etik 2020ko ekainaren 30era **egindako kudeaketa azaltzen du**, eta 11/2018 Legea hartzen du oinarri. Horretarako, jasagarritasun-memoriak egiteko Global Reporting Initiative erakundearen gidaliburuan ezarritako gidalerroak hartu dira kontuan (GRI estandarrak).

Txosten honen bidez, **Klubak gardentasun handiagoa eskaini nahi die bere interes-taldeei** eta bide batez, aipatutako ekitaldian egindako enpresa-jasagarritasunari buruzko ekintzen berri eman.

Dokumentu honek, besteak beste, gai hauei buruzko informazioa eskaintzen du: ingurumena, enpleguari eta langileei buruzko ekimenak, ustelkeriaren eta eroskeriaren aurkako borroka, negozio-eredua, erakundearen arriskuak eta klubaren politika sozialak.






## 2. MATERIALTASUNA- REN AZTERKETA

2.a. Interes-taldeak

2.b. Azterketa





## 2.a. Interes-taldeak

**Alderdi interesdunak dira erakundean eragina duten barne- eta kanpo-faktoreen multzoa.** Formalki, honela defini ditzakegu: enpresa-ren jardueraren eraginpean egon daitezkeen edo enpresa zein erakunde publikoaren kalitatearen kudeaketa-sistemari eragin diezaioketen inte-res-talde guztiak.

**ALDE INTERESDUNAK**

Akziodunen  
batzar nagusia

**DEFINIZIOA ETA EGINKIZUNAK**

SD Eibarren gobernu-organo  
gorena da.

**BETEKIZUNAK**

Arauak betetzeko programaren eta Eroskeriaren aurkako eta Complian-  
ce penalari buruzko kudeaketa-sistemen inguruko informazioa jasotzea.

Akziodunak

SD Eibarren akzioen jabeak dira

Akzioak ordaintzea.

Administrazio  
kontseilua

Administrazio-organo gorena da.  
Arauak betetzeko programa eta  
Eroskeriaren aurkako eta Com-  
pliance penalari buruzko ku-  
deaketa-sistemak onartzen ditu.

Iniziatiba hartzea eta lidergoa erakustea Arauak betetzeko programaren  
eta Eroskeriaren aurkako eta Compliance penalari buruzko kudeaketa-sis-  
temen inguruan. Sistemak eta horiei buruzko aldaketak eta hobekuntzak  
onartzea. Lider moduan, dokumentu bat sinatzen dute urtero, Arauak be-  
tetzeko programarekiko eta Eroskeriaren aurkako eta Compliance penalari  
buruzko kudeaketa-sistemekiko konpromisoa azpimarratzeko.

Zuzendariak

Eguneroko kudeaketaren ardura-  
dunak dira.

Arauak betetzeko programaren eta Eroskeriaren aurkako eta Compliance  
penalari buruzko kudeaketa-sistemen arloan lidergoa erakustea eta horien  
aplikazioaren eredu izatea. Honako dokumentuak ezagutu eta onartzen di-  
tuztela izenpetzen dute: Arauak betetzeko programa, eta legez kanpoko  
apustuen eta informazio pribilegiatuaren erabileraren kontrako klausula.



| ALDE INTERESDUNAK      | DEFINIZIOA ETA EGINKIZUNAK                                                                                                                                                                                 | BETEKIZUNAK                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                           |
|------------------------|------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------|-------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------|
| Langile arruntak       | Klubaren eremu guztien eguneroko lana egiten dute, honako hauek barne hartuta: administrazioa eta kudeaketa, komunikazioa, marketina, jokalarien scouting-a, instalazioen mantentze-lanak eta egokitzapena | Arauak betetzeko programan zehaztutako obligazioak betetzea esparru guztietan eta horretarako, aplikagarri zaizkien protokoloak onartzen eta ezagutzen dituztela sinatzea, legez kanpoko apustuen eta informazio pribilegiatuaren erabileraren aurkako klausula izenpetzea, eta Eroskeriaren aurkako eta Compliance penalari buruzko kudeaketa-sistemekiko konpromisoari buruzko dokumentua sinatzea. |
| Hornitzaileak          | Klubari ondasunak edo zerbitzuak ematen dizkieten hirugarrenak dira.                                                                                                                                       | Beren kontratuak, Kode etikoaren atxikitze-klausulak eta Compliance penalari eta eroskeriaren aurkako konpromisoari buruzko politikaren atxikitze-klausulak betetzea.                                                                                                                                                                                                                                 |
| Azpikontratatistak     | Eginkizun zehatzak egiteko kontratatzen diren hirugarrenak dira.                                                                                                                                           | Kode etikoaren atxikitze-klausulak, Compliance penalari eta Eroskeriaren aurkako konpromisoari buruzko politikaren atxikitze-klausulak, etaeta eta beren langileak zuzentzeko eta LAP neurriei buruzko araudia betetzea.                                                                                                                                                                              |
| Babesleak              | Enpresa/ marka iragarleak dira.                                                                                                                                                                            | Beren kontratuak, Kode etikoaren atxikitze-klausulak eta Compliance penalari eta eroskeriaren aurkako konpromisoari buruzko politikaren atxikitze-klausulak betetzea.                                                                                                                                                                                                                                 |
| Administrazio publikoa | Erakunde publikoak: Eibarko Udala, Gipuzkoako Foru Aldundia, Eusko Jaurlaritza.                                                                                                                            | Harreman gardenak eta zintzoak. Noranzko biko elkarlana.                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                              |
| Funtzionario publikoak | Administrazio publikoaren agintariak edo langileak dira.                                                                                                                                                   | Eroskeriaren eta ustelkeriaren aurkako protokoloan ezarritakoa Klubak betetzea, opariak emateari dagokionez.                                                                                                                                                                                                                                                                                          |




| ALDE INTERESDUNAK               | DEFINIZIOA ETA EGINKIZUNAK                                                                                | BETEKIZUNAK                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                     |
|---------------------------------|-----------------------------------------------------------------------------------------------------------|-------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------|
| Kirol erakundeak                | Futbol profesionala arautzen duten erakundeak dira: CSD, RFEF, FGF LFP.                                   | Klubak erakunde bakoitzaren araudia betetzea.                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                   |
| Abonatuak                       | Partidetara bertaratzeko, sasoiko abonu ezberdinak erosten dituzten pertsonak.                            | Estadioan sartzeko, bertan egoteko eta horren segurtasunari buruzko arauak betetzea eta ezarritako kuotak ordaintzea.                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                           |
| Klubaren jarraitzaileak         | SD Eibarren zale guztiak dira.                                                                            |                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                 |
| Fundazioa                       | Gizarte- eta prestakuntza-jarduerak.                                                                      | Fundazioaren arauak betetzeko programa betetzea.                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                |
| Jokalari profesionalen agenteak | Jokalari profesionalen ordezkariak edo agenteak dira. Transferentziak eta kontratuak negoziatzen dituzte. | Negoiazio zintzoak egitea, kontratuak betetzea eta zuriketa prebenitzeko klausula kontratu berrietan sartzea.                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                   |
| Jokalari profesionalak          | SD Eibarko lehen lantaldearen kideak.                                                                     | Aplikagarri zaizkien Arauak betetzeko programaren eta Eroskeriaren aurkako eta Compliance penalaria buruzko kudeaketa-sistemen protokoloak sinatzea eta legez kanpoko apustuen eta informazio pribilegiatuaren erabileraren aurkako klausula izenpetzea. Era berean, esposiziopeko langileak direnez, beste dokumentu bat sinatu beharko dute, urtero, Arauak betetzeko programarekiko eta Eroskeriaren aurkako eta Compliance penalaria buruzko kudeaketa-sistemekiko konpromisoa adierazteko. |



## 2.b. Azterketa

Erakundearentzat garrantzi handia duten gaiak ezagutzeko helburuarekin egin du SD Eibarrek materialtasunaren oinarrizko azterketa.





**Ikerketa eguneratzeko prozesua:**

- Kirol-erakundeari eragiten dioten joera nabarmenak aztertzea. Gai globalak identifikatzea.
- Identifikatutako gai garrantzitsuak barne-mailako interes-taldeei aurkeztea.
- Materialtasun-matrizea baliozkotzea, enpresa-erakundeentzako benetan garrantzitsuak diren gaiak behar bezala islatzen dituela ziurtatzeko.

**Gai garrantzitsuak identifikatzea:**

- Lehentasunezko gaiak identifikatzeko prozesuan, Dow Jones Sustainability Index-aren estandarreko gomendioak hartu dira kontuan, SD Eibarri eragin diezaioketen joera nagusiak identifikatze aldera.

**GAI GARRANTZITSUEN BALORAZIOA****Barneko ikuspegia:**

- SD Eibar SAD kirol-elkarteko Administrazio

Kontseiluko kideentzako galdetegia. Lagin adierazgarri bat bidaltzea, 1etik 10era puntuatzeko gai garrantzitsuek erakundearen antolakuntzan duten garrantzia.

- Klub jasangarrien gidaliburua.
- Klub eta kirol-sozietate anonimoentzako erreferentziako eskuliburu honetan jasotako kudeaketari buruko gai garrantzitsuak integratzea.

**Kanpoko ikuspegia:**

- Dow Jones Sustainability Index (DJSI). Jasangarritasunari buruzko hainbat indizeren arabera gaien puntuazioa. DJSI indizean ekonomia, ingurumena eta gizartea bezalako eremuetan jarduera handia duten munduko konpainiarik onenak daude integratuta.

**OHARRA**

DJSI-k hiru dimentsio erabiltzen ditu enpresen jasangarritasunari buruzko balorazioa egiteko:

- Ingurumen-dimentsioa: ingurumenarekin edo eko-efizientziarekin lotutako irizpideak barne hartzen ditu.
- Gizarte-dimentsioa: bi alderditan banatzen da: barne-alderdia, giza-kapitalaren garapena baloratzen duena, alegia, gaitasunaren sendotzea; eta kanpo-alderdia, enpresaren inguruan dagoen guztia kontuan hartzen duena, filantropia eta korporazioaren irudia barne.
- Dimentsio ekonomikoa: Krisi eta arriskuen kudeaketa, jokabide-kodeak eta gobernu korporatiboa bezalako alderdiak ebaluatzen ditu.



# 3. **NEGOZIO-EREDUA**

3.a. Erakundearen profila

3.b. Egitura eta organigrama

3.c. Balioak - Helburuak - Estrategia

3.d Arriskuen kudeaketa

3.e. Negozio-zifrak





## 3.a. Erakundearen profila

Sociedad Deportiva Eibar, S.A.D. erakundea 1940ko urtarrilaren 1ean eratu zen kirol-elkar-te gisa, eta hala izen eman zuen, ofizialki, ki-rol-arloko klubaren eta elkarleen eraketa eta funtzionamendua arautzen zuen Eusko Jaurla-ritzaren 306/1985 Errege Dekretuak, urriaren 8koak, ezarritakoari jarraikiz. 1992ko ekainaren 26an, ordea, kirol-sozietate anonimo bilakatu zen, Kirol sozietate anonimoak arautzen dituen uztailaren 5eko 1041/1991 Errege Dekretuak agindu bezala.

Ipurua Kirol Fundazioa, bere partez, 2004an eratutako irabazi-asmorik gabeko erakunde bat da. 2016az geroztik, jarduera nabarmen suspertu zuen “SDEibar Fundazioa” markaren pean (aurrerantzean, “SDEibar” deituko dira erakunde biak Informazio ez-finantzarioaren egoera-orrian”).

Bere helburu soziala futbolaren kirol-mo-dalitateko lehiaketa profesional eta ofizia-letan parte hartzea edo beste kirol-mota batzuei buruzko kirol-ekintzak zein futbo-laren praktikarekin lotutako bestelako jar-duerak sustatu eta garatzea bada ere, SDEi-barrek bere inguruan inpaktu positibo bat sortu nahi jarduera horrekin batera. Bere ingurutzat jotzen da Eibarko hiria eta uda-lerri mugakideak.

SD Eibar eta SD Eibar Fundaizoaren **egoitza soziala** eta **egindako ekintzei** buruzko infor-mazioa aurkituko dugu ondoren:

### 1. EGOITZA SOZIALA:

Sociedad Deportiva Eibar, S.A.D. kirol-elkar-teak eta Ipurua Kirol Fundazioak **Ipuruako udal-estadioan dute egoitza soziala**, Eiba-rreren (Gipuzkoa), Ipurua kaleko 2. zenbakian.

Gainera, erakundeak jarraian zehaztutako kokalekuetan ere garatzen ditu hainbat ekintza:

- **Atxabalpeko entrenatzeko futbol-zelaia**, Arrasateko Garagartza auzoko 988. zenbakian (Gipuzkoa).
- **Unbeko kirol-konplexua**, Eibarko Otaola Balle kaleko 33. zenbakian (Gipuzkoa).



2. EKINTZAK:

SDEibarren jarduera nagusia da futbol profesionaleko zein afizionatu-mailako kirol-lehiaketetan parte hartzea. Parte-hartze horrek kirol-jarduerarekin lotutako beste jarduera batzuk dakartza. Horien artean daude kirol-jardueraren eta Klubaren instalazioen ustiapen komertziala, eta inguruan eragin positiboa sortzeko gizarte-jarduera bizia.

Kirol jarduera:

Lehenago adierazi dugunez, SDEibarren jarduera nagusia futbol profesionaleko zein afizionatu-mailako kirol-lehiaketetan parte hartzea da. Jarduera horren garapenak berdintasuna du oinarri eta beraz, sexu bietako futbol-talde profesionalak eta afizionatu-mailakoak daude. Hala, talde horiek, futbol inklusibokoak eta futbol-eskola batuta, 500 pertsona baino gehiago daude Klubaren familian. 2020ko ekainaren 30ean itxitako ekitaldian, hauek izan ziren SDEibarren taldeak:

| MAILA                          | GENEROA | TIPOA        | JOKA-LARIAK | TEKNI-KARIAK |
|--------------------------------|---------|--------------|-------------|--------------|
| 1. Maila                       | Giz.    | Profesionala | 24          | 16           |
| 1. Maila                       | Emak.   | Profesionala | 23          | 10           |
| 3. Maila (CD Vitoria)          | Giz.    | Profesionala | 22          | 10           |
| Emakumezkoen Euskal Liga       | Emak.   | Amateura     | 21          | 4            |
| Ohorezko Maila Erregionala     | Giz.    | Amateura     | 20          | 6            |
| Ohorezko Maila Erregionala     | Emak.   | Amateura     | 23          | 3            |
| Ohorezko Maila Jubenila        | Giz.    | Amateura     | 21          | 5            |
| Euskal Liga Jubenila           | Giz.    | Amateura     | 20          | 5            |
| Ohorezko Liga Jubenila         | Giz.    | Amateura     | 20          | 4            |
| Euskal Liga Kadetea            | Giz.    | Amateura     | 20          | 4            |
| Ohorezko Kadetea               | Emak.   | Amateura     | 24          | 2            |
| Ohorezko Kadetea               | Giz.    | Amateura     | 20          | 3            |
| Ohorezko Infantila             | Giz.    | Eskolakoa    | 19          | 3            |
| Ohorezko Infantila             | Emak.   | Eskolakoa    | 12          | 3            |
| Infantil Txiki                 | Giz.    | Eskolakoa    | 19          | 3            |
| Errendimenduzko Alebina        | Giz.    | Eskolakoa    | 13          | 2            |
| Parte hartzeko Alebina         | Masc.   | Eskolakoa    | 13          | 2            |
| Desgaitasun intelektual        | Mistoa  | Inklusiboa   | 24          | 2            |
| PC taldea (garuneko paralisia) | Mistoa  | Inklusiboa   | 14          | 2            |
| Futbol Eskola                  | Mistoa  | Eskolakoa    | 160         | 14           |
| Beteranoak                     | Giz.    | Amateura     | 25          | 1            |
| Beteranoak                     | Emak.   | Amateura     | 30          | 1            |

SDEibarko futbol profesionalaren ereduak etengabeko lana eta hobekuntza ditu oinarri, elitean jarraitzeko arrakastaz borrokatuz. Eredu hori aintzat hartuta, Lehen Mailari beste urte batez eutsi ahal izan dio gizonezkoen lehen taldeak, eta beraz, maila gorenean jokatu du zazpigarren urtez jarraian. Era berean, Bigarren Mailako emakumezkoen taldeak igoera historikoa lortu du Lehen Mailara, bere kategoriako Iparraldeko Multzoaren sailkapeneko lehen postuan amaitu ondoren.

Bestalde, Klubaren afizionatu- eta eskola-mailako futbol-ereduak heziketa integrala eman nahi die talde horietako jokalariei, kirolari eta pertsona gisa. Eredu horrek helburu bikoitza dauka: batetik, SDEibarko talde profesionalak etengabeko lanaren eta hobekuntzaren kulturaren hezitako jokalariez hornitzea, eta bestetik, balioetan hezitako pertsonekin eskualdean inpaktu positibo bat sortzea. Horretarako, “Construyendo Nuestros Valores – Gure Balioak Eraikitzen” proiektua erabiltzen dugu, Klubeko kideak Apaltasunaren, Konpromisoaren, Diziplinaren, Errespetuaren, Elkartasunaren eta Zintzotasunaren balioetan hezteko xedez.



**Kirol-jarduerarekin lotutako ekintzak:**

Kirol-jarduerari lotuta, SDEibarrek jarduera komertziala eta ekonomikoa garatzen du kanal tradizionalen eta online baliabideen bidez. Merkataritza-jarduera horrek, oro har, babesleekin, txikizkako merkataritzarekin eta espazioen ustiapenarekin zerikusia dauka.

Babesleei dagokienez, Kluba eta haren jarduerak erakunde gisa ezagutarazteko eta beren produktu eta zerbitzuak aurkezteko erabiltzen duten hainbat bazkide ditu SDEibarrek. Arlo horretan, nabarmentzekoa da SDEibarrekin lan egiten duten erakundeen leialtasuna, horietako askok hainbat denboraldi baitaramate gurekin. 2020ko ekainean itxitako ekitaldian honako hauek izan dira Klubaren babesle nagusiak: Avia, BOJ, Joma, Bet365, Caixabank eta San Miguel. Era berean, Klubaren hornitzaile ofizial izan dira Coca Cola, Seat Lugaritz, IMQ, Viajes Premier Class, Insalus, Fullgas eta BM, eta partner ofizial izan dira El Corte Inglés eta El Diario Vasco.

Txikizkako merkataritzari dagokionez, Klubak salmentarako kanal tradizionalak eta online baliabideak finkatu ditu ekitaldi honetan, COVID-19aren inpaktua pairatu arren. Kanal tradizionalari dagokionez, lehenengo aldiz, Ipuruako denda fisikoa (Orsaixan) ekitaldi osoan zehar jendearentzat zabalik izan dugu eta aurreko ekitaldiekin alderatuta, nabarmen egin du gora klubeko kirol-materialaren salmentak. Online kanalarik dagokionez, salmentak ere gora egin du, COVID-19 krisiaren eta konfinamenduaren ondorioz biztanleriak kontsumo-ohiturak aldatu dituelako.


Ipuruako udal-estadioaren erabilera eta ustiapenari dagokionez, mendebaldeko eta hegoaldeko tribunak barne hartuko dituzten estadioa eraberritzeko lanen azken fasea abiatu da, eta espazio berriak sortu dira. Eraberritze-lanen ondorioz, Hospitality espazio berriak merkaturatu dira, 6 box pribatu eta gune komun batekin. Box pribatu bakoitzak 10 ikuslerentzako edukiera dauka. Ipuruako udal-estadioaren espazioen ustiapena mu-

gatuagoa izan da, hasiera batean, obraren ondorioz eta gero, COVID-19ak eragindako egoeragatik. Hala ere, lanak amaitu ondoren, estadioaren espazioak ustiatzeko aukera berriak agertu dira.



# 3.b. Egitura eta organigrama

Horrelakoa da SD Eibarren organigrama:





**BATZORDEAK:**

**Gizonezko Futbol Profesionalaren Kirol-batzordea:**

| KIDEAK                              | KARGUA                           |
|-------------------------------------|----------------------------------|
| Amaia Gorostiza Tellería            | Admin. Kontseiluaren presidentea |
| Jabier Gurrutxaga Rivero            | Kontseilaria                     |
| Anton Martinena Mallagaray          | Kontseilaria                     |
| Fran Garagarza Eizagirre            | Kirol-zuzendaria                 |
| Mikel Martija López de Luzuriaga    | Idazkari teknikoa                |
| J. María Arrizabalaga Agirreazaldeg | Presidentetzaren aholkularia     |
| Jon Ander Ulazia Garetxana          | Kontseilari ordezkaria           |

**Ekonomia-batzordea:**

| KIDEAK                            | KARGUA                 |
|-----------------------------------|------------------------|
| Joseba Unamuno Areitioaurtena     | Kontseilaria           |
| Virginia Arakistain Ariznabarreta | Kontseilaria           |
| Gergori Prieto Valbuena           | Finantza-zuzendaria    |
| Jon Ander Ulaiza Garetxana        | Kontseilari ordezkaria |

**Emakumezko Futbol Profesionalaren eta Prestakuntza-futbolaren Kirol-batzordea:**

| KIDEAK                      | KARGUA                           |
|-----------------------------|----------------------------------|
| Anton Martinena Mallagaray  | Kontseilaria                     |
| Leire Barriuso Astigarraga  | Kontseilaria                     |
| Javier Sarrionandia Echandi | Kontseilaria                     |
| Fran Garagarza Eizagirre    | Kirol-zuzendaria                 |
| Raúl del Pozo Guinaldo      | Oinarrizko Futbolaren zuzendaria |
| Jon Zabaleta Pérez          | Emak. Futbolaren zuzendaria      |
| Jon Ander Ulazia Garetxana  | Kontseilari ordezkaria           |

**Marketin-batzordea:**

| KIDEAK                          | KARGUA                            |
|---------------------------------|-----------------------------------|
| Agustín Lahidalga Gonzalez      | Kontseilaria                      |
| Joseba Unamuno Areitioaurtena   | Kontseilaria                      |
| Alex Martínez Urizar            | Kontseilaria                      |
| Beñat Redondo Urueña            | Planifikazio Estrategikoko zuzen. |
| Iñigo Echepare Cano             | Babesleen arduraduna              |
| Ainara López de Viñaspre Blanco | Arduradun komertziala             |
| Jon Ander Ulazia Garetxana      | Kontseilari ordezkaria            |

**Instalazioei eta Segurtasunari buruzko Batzordea:**

| KIDEAK                       | KARGUA                           |
|------------------------------|----------------------------------|
| Amaia Gorostiza Tellería     | Admin. Kontseiluaren presidentea |
| J. Antonio Fernández Taboada | Kontseilaria                     |
| Javier Sarrionandia Echandi  | Kontseilaria                     |
| Gorka Unamuno Enzunza        | Instalazio eta Segurtasun zuzen. |
| Jon Ander Ulazia Garetxana   | Kontseilari ordezkaria           |

**Komunikazio-batzordea:**

| KIDEAK                     | KARGUA                 |
|----------------------------|------------------------|
| Leire Barriuso Astigarraga | Kontseilaria           |
| Alex Martínez Urizar       | Kontseilaria           |
| Unai Artetxe Leal          | Komunikazio-zuzendaria |
| Jon Ander Ulazia Garetxana | Kontseilari ordezkaria |

**Beste batzorde batzuk:**

- Segurtasun-batzordea
- Euskera-Batzordea
- Berdintasun-batzordea
- Batzorde-juridikoa



## IPURUA KIROL FUNDAZIOAREN ORGANIGRAMA

SD Eibar Fundazioak, bere gobernu-egituran, 10 kidek osatutako Patronatua du eta SD Eibar S.A.D. kirol-elkartearen presidente berbera dauka.

Urtero egiten du Fundazioaren Batzar Nagusia, gardentasun ariketa batean, urteko aurrekontuak aurkezteko, Presidente Andereak erakundearen txostena egiteko eta lan-lerro garrantzitsuenak erakusteko.

### PATRONATUA

#### Presidentea:

- Amaia Gorostiza

#### Presidenteordea:

- Mikel Larrañaga (Eibarko alkate ohia 1979 eta 1983 artean, SD Eibarko kontseilari ohia 2014 eta 2017 artean)

#### Zuzendaria:

- Elisa Mangado Martín

#### Fundazioaren komunikazio-arduraduna:

- Arrate Fernández

#### Patronoa:

- Jon Ander Ulazia (SD Eibarko kontseilaria 2012tik)

#### Patronoa:

- Leire Barriuso (SD Eibarko kontseilaria 2017tik)

#### Patronoa:

- Oscar Artetxe (SD Eibarko Lehen Taldeko jokalaria ohia 1990 eta 2001 artean)

#### Patronoa:

- Ainhoa Alonso (SD Eibarko Lehen Taldeko jokalaria ohia 2004 eta 2017 artean)

#### Patronoa:

- Jesús Gutiérrez (historiagilea, idazlea eta kirol-teknikaria Gipuzkoako Foru Aldundian)

#### Patronoa:

- Jorge Rubio (SD Eibarko Nazioarteko Lagunarteen Federazioaren idazkaria, Mandiola Laguntaldea lagunartearen presidentea)

#### Patronoa:

- Gergori Prieto (SD Eibarko Administrazio, Finantza eta Giza Baliabideetako zuzendaria)



## 3.c. Balioak - Helburuak - Estrategia

### BALIOAK:

SDEibar erakundeak nortasun sendoa izan du bere 80 urteko historian zehar, eta Eibarko hiriari eta bere inguruari oso lotuta egon da beti. Honako hauek dira Kluba bereizi izan duten balioak:

- **Apaltasuna:** emakumezko zein gizonezko taldeekin Lehen Mailan lehiatzen duten klubaren artean, biztanle kopururik txikieneko hiria ordezkatzeko duena da SDEibar.
- **Kalitatezko lana:** elitean jarraitzeko helburua betetzeko, kalitate eta zorroztasunik handienarekin lan egiten saiatzen da SDEibar. Horren adierazle ditugu klubak jasotako kalitatezko egiaztagiri anitzak (partiduen antolakuntzari buruzko ISO 9001, adibidez).

- **Gardentasuna:** Klubak garrantzi handia ematen dio Futbol Klubaren Gardentasun Indizearen betekizunari (IN-FUTB) eta horretarako, ekonomia- eta finantza-arloko informazio guztia argitaratzen du bere atarietan. Era berean, Akziodunen Batzar Nagusiaz haraindi, bere inguruko talde eta kolektibo guztiei hartutako erabakien berri ematen die, beharrezkoa bada, bilerak eginez.

- **Osotasuna:** Klubak ahalegin handia egiten du kudeaketari buruzko araudia betetzeko eta kide guztiei eskatzen die egunero osotasun-estandar garrantzitsuenak betetzeko. Hala, Zigor Compliance-ko Kudeaketa Sistemen UNE 19601 eta Ustelkeriaren aurkako Kudeaketa Sistemen ISO 37001 ziurtagiriak eskuratu ditu.

- **Hurbiltasuna:** Kluba ondo ezarrita dago bere inguruan, eta gogotsu lan egiten du bere zale eta jarraitzaile guztiei ahalik eta modurik erosoenean eta eskuragarri dituen bide guztietatik arreta egiteko.

Klubak bere printzipio eta balioei jarraikiz erdietsi ditu lorpenik handienak, erakunde apala eta langilea izanez eta erantzukizunean eta lan gogorrean oinarritutako kudeaketa baten bitartez. Era berean, osotasunetik eta gardentasunetik lan egiten du eta bere inguruko masa sozialari hartutako erabakien berri ematen saiatzen da.



## PROIEKTU ESTRATEGIKOAK

Klubaren ezaugarriak kontuan hartuta, LaLiga Santanderren finkatu ahal izateko beharrezkoa da hainbat azpiegitura eskuratzea, lehiakorrak izaten jarraitzeko eta denboraldiz denboraldi helburuak betetzeko.

Horregatik, 2014an Lehen Mailara igo zenetik, Klubak erabat estrategikotzat jo du kudeaketarako egitura profesional bat sortzeko zenbait proiektu ezartzea. Egitura hori funtsezkoa da kluba Lehen Mailan finkatzeko eta maila galtzekotan, eliteko kategoriara itzultzeko helburua bete ahal izateko. Xede horrekin, hainbat proiektu abiarazi dira kirol, azpiegitura eta baliabideak sortzeko sailetatik.

### • Kirol Hiria

Klubaren proiektu nagusia da SDEibarren Kirol Hiria eraikitzea. 2018ko urriko Batzar Nagusian onartu zuten instalazio horiek eraikitzea Klubeko akziodunek. Horretarako, 20 milioi euro inguruko inbertsioa egingo da eta proiektuak

5 futbol-zelai (belar naturaleko 2 eta belar artifizialeko 3) eta horiei atxikitako zenbait instalazio barne hartuko ditu. Helburua da une honetan 6 instalazio ezberdinetan gauzatzen den lana zentralizatzea eta Klubeko talde guztiek leku berean entrenatzea. Hala, gaur egun erabiltzen dituen Atxabalpeko (Arrasate-Mondragón) instalazioen ordeztu, lehen taldeak azpiegitura moderno eta funtzional bat izango du eskuragarri, prestakuntzarako funtsezko zerbitzu guztiekin, eta horrek, jakina, errendimendua hobetzen lagunduko dio.

Bestalde, Klubeko egituraren integratutako gainerako taldeek ere lanerako espazio berri bat izango dute. Modu horretan, zerbitzu guztiak zentralizatu eta erakundearen kostuak murriztu ahal izango dira, eta lan egiteko baldintza ezin hobeak eskainiko dira, instalazioaren eskuragarritasunari eta kalitateari dagokionez. Hobekuntza horiek Klubak hainbat urtez geroztik harrobiko langile eta azpiegiturretan egiten duen inbertsioa osatuko dute (1 milioi eurotik gora urtero), etorkizunean SDEibarko talde profesionaletan jokatu duten jokalariei

gazteak hezteko helburuarekin. 2020ko ekainaren 30ean itxitako ekitaldian zehar, SDEibarrek etorkizuneko Kirol Hiria eraikitzeko lanak abiarazteko beharrezkoak diren hirigintza-izapideetan jarduten ibili da. Bereziki, eta ingurumen-inpaktuari, soinu-inpaktuari eta argi-inpaktuari buruzko azterlanak egin ondoren, eta Bizkaiko errepideen sistemarekiko eragina neurtu ondoren, Mallabiko Hiri Antolamendurako Plan Orokorra aldatzeko proposamena idatzi eta aurkeztu du, udalerri horretako Udalak hasierako onespena eman diezaion. Lanak 2020. urtea amaitu baino lehen hastea aurreikusten da.

### • Ipuruako futbol-zelaiaren birmoldaketa

2014ko maiatzean Lehen Mailara igo zenetik, Ipuruako udal-estadioa modu integralean berritzeko lanean ibili da Kluba. Helburua da estadioaren gaitasuna handitzea, ikusleei eta partida-egunean parte hartzen duten pertsonen emandako zerbitzuak hobetzea, eta estadioaren bitartez klubarentzako diru-sarrerak sortzea.



2020ko ekainaren 30ean itxitako ekitaldian, estadioa birmoldatzeko azken txanpari ekin dio SDEibarrek eta Mendebaldeko Gol Tribunaren, Ipuruako Anexoaren eta estadioaren barneko aparkalekuaren obretan ibili da lanean. Lan horiek bukatutakoan, amaitutzat emango estadioaren birmoldaketa, 20 milioi euroko inbertsioa egin ondoren.

Birmoldaketa horri esker, 8.000 ikuslerentzako edukiera izango du Ipuruak (2014an 5.200 eserleku zituen). Ikusle horiek sarbide berri eta birmoldatuetatik sartuko dira estadioan (6 sarbideetik 9ra pasatuko da) eta zenbait zerbitzu berri izango dituzte eskuragarri, hala nola, tabernak eta tribuna bakoitzerako komunak. Era berean, irisgarritasuna hobetze aldera, mendebaldeko eta ekialdeko tribunetara iristeko igogailuak instalatuko dira.

Berdeguneko protagonisten prestazioak hobetzeari dagokionez, aparkaleku berri bat eraiki da mendebaldeko tribunan, etxeko eta kanpoko taldeetako autobusak eta autoak aparkatzeko edukierarekin. Horrela, jokalaria, entrenatzaile

eta arbitroak sarrera beretik sartu ahal izango dira. Era berean, partidak amaitzean, mendebaldeko tribunan prentsa aretoa eta eremu mistoa ezarriko dira, protagonistak estadioko toki bate-tik bestera ibili ez daitezen.

Birmoldaketaren ondoren, Ipuruak nabarmen handitu ditu klubarentzako baliabideak sortzeko dituen aukerak. Hala, denda ofizial berri bat ireki da eta 2020. urtea bukatu baino lehen, prest egongo da Klubaren museo berria. Horrez gain, hospitality guneak ezarri dira iparraldeko tribunan, tribuna nagusian eta ipar-ekialdeko kurban, eta horien bitartez, diru-sarreraren lerro berri bat aktibatu da, birmoldaketaren aurretik ezinezkoa zena. Azkenik, partida-egunetatik harago, Ipurua bilera-areto gisa ustiatzeko aukerak sortu dira eta horretarako guneak ezarri dira estadioaren zenbait espaziotan.

#### • Digitalizazioa:

Kluba digitalizaziorako bidean aurrera egiten ari da, eskuragarri izan ditzakeen plataforma guztietatik zale guztientzako ahalik eta zerbitzurik

onena eskaintze aldera. Hala, Eibar Fan Club delakoa jarri du martxan (EFC). Horren bitartez, Klubarekin elkarreragiteko, babesleen promozioetan izena emateko eta abonamenduekin lotutako kudeaketak egiteko aukera izango dute zaleek, eta Ipuruara joateagatik edo erosketak egiteagatik puntuak eskuratu eta merchandising-produktuekin edo beste abantaila batzuekin trukatu ahal izango dituzte. Klubak inbertsio eta hobekuntza sakonak egiten ditu eremu digitaletan, ingurune digital batetik abonatuiei, akzio-dunei eta zaleei zerbitzu hobeak eskaintzeko. Inbertsio horiei esker, ekimen berriak gauzatuko dira hurrengo ekitaldietan.

Puntu horretaz gain, Klubak negozio-adimeneko tresnak barneratu ditu kirol- eta korporazio-arloko eguneroko jarduera hobetze aldera. Helburua da tresna horien bitartez ahalik eta informazio kopururik handiena kudeatu ahal izatea esparru guztietako erabakiak hartzerako orduan, eta klubaren estrategia norabide horretan bideratzea. Negozio-adimena ezinbestekoa izango da epe ertainean eta SDEibarrek bide horri ekin nahi dio bere egitura profesionala indartzeko.



## 3.d. Arrisku kudeaketa

Oro har, SDEibarrek arrisku nabarmentzat jotzen ditu bere jardueraren errentagarritasun ekonomikoan, kaudimen finantzarioan eta langileen edo korporazioaren izen onean eta osotasunean eragina izan dezaketen inguruabarrak.

Hala, COVID-19aren agerraldiak eta pandemia-egoeraren aldarrikapenak arrisku handiak dakar, Elkartearen jardueraren errentagarritasun ekonomikoan eragina duelako. Izan ere, erakundearen diru-sarreraren murrizketa ekar dezakeen krisi ekonomikoko egoera batekin lotuta dago. Gainerako kasuetan, ez da kaudimen finantzarioko arriskurik hautematen, erakundearen ondare-egoera ona baita, ezta korporazioaren izen ona edo langileen osotasuna kalte dezakeen arriskurik ere.

Egoera horretan, “Denok Armagin” izeneko plana abiarazi du SDEibarrek, azken urteotan izandako abonatuaren, enpresa laguntzailearen eta babesleen kopurua mantentzeko, ahal den neurrian. Plan hori 2020/2021eko denboraldian garatuko da eta eragin berezia izango du 2020ko azken hilabeteetan eta 2021eko hasieran.



### 3.e. Negozio-zifrak

2020ko ekainaren 30ean itxitako ekitaldian zehar, zenbait ekitaldiz jarraian gora egin ondoren, atzerakada arina pairatu zuten negozio-zifrek, batez ere, COVID-19aren ondorioz, lehiaketa profesionalak martxotik ekainera bitartean eten zirelako.

Jarraian, ekitaldi horretako jardueraren zifra esanguratsuak aurkezten dira. Kontuan hartu behar da Negozio-zifraren zenbatekoa erakunde bietako negozio-zifraren zenbateko garbia dela, Langileen atalean ekitaldia ixteko datan zegoen langile-kopurua zenbatzen dela eta zergatzat Foru- edo Toki-ogasunari eta Gizarte Segurantzari egindako ordainketak jotzen direla.

| ERAKUNDEA                        | NEGOZIO-ZIFRAREN ZENBATEKOA | LANGILEAK | ZERGAK         |
|----------------------------------|-----------------------------|-----------|----------------|
| SOCIEDAD DEPORTIVA EIBAR, S.A.D. | 47.309.372,44€              | 136       | 24.496.893,88€ |
| IPURUA KIROL FUNDAZIOA           | 1.628.870,90€               | 94        | 774.400,87€    |



# 4. PERTSONEN KUDEAKETA

4.a. Enplegua

4.b. Ordainsari-mota

4.c. Lanaren antolakuntza


4.d. Prestakuntza eta karrera-plana

4.e. Gizarte harremanak

4.f. Berdintasuna

4.g. Segurtasuna eta osasuna

SD Eibar bezalako klub batean, pertsonak dira aktibo nagusietako bat dira. Hurrengo epigrafeetan honako hauek zehazten dira: langileen mapa, ordainsari motak, lanaren antolakuntza eta klubeko kide guztientzako baimenak eta onurak, prestakuntza eta gizarte harremanak. Gainera, SD Eibarrek generoen arteko aukeren berdintasuna bermatzeko lan egiten du eta modu berean, bere langileen segurtasuna eta osasuna zaintzen du.





## 4.a Enplegua

| TARTEA | ZENBAKIA | GIZONAK | EMAKUMEAK | K/FINKOA | K/ ALDI BAT. |
|--------|----------|---------|-----------|----------|--------------|
| 18-25  | 57       | 57      | 0         | 2        | 55           |
| 26-35  | 30       | 30      | 0         | 6        | 24           |
| 36-45  | 22       | 18      | 4         | 7        | 15           |
| 46-55  | 5        | 4       | 1         | 2        | 3            |
| 56-70  | 10       | 9       | 1         | 7        | 3            |

## 4.b. Ordainsari-mota

Langile guztiek ordainsari finko bat jasotzen dute emandako zerbitzuaren truke.

Bestalde, langile gehienek haien eginkizunen eta eragin-eremuen arabera ordainsari aldakor bat dute:

- **Kirol-arloa:** taldearen sailkapenarekin lotutako helburuak eta helburu indibidualak.
- **Kudeaketa-arloa:** banakako, saileko eta taldeko helburuak.

Ez da sexuaren edo beste edozein arrazoiren ondoriozko alborapenik egingo.



## 4.c. Lanaren antolakuntza

Ordutegiak erabakitzeke, aplikagarri den hitzarmenean ezarritako ordu-kopurua hartuko da kontuan (alegia, Gipuzkoako ikuskizunetako eta kiroleko lokalen hitzarmenean, langile arruntentzat, eta Liga-AFE eta Federazioaren hitzarmenean, kirol-arloko langileentzat), lanpostuaren arabera aldaketak egon daitezkeela kontuan hartuta. Hala ere, erakundeak konfiantzan oinarritutako kudeaketa aplikatzen du arlo askotan eta beraz, langile bakoitzak egokien iruditzen zaion moduan kudea dezake bere denbora.

Bateratzeari eta baimenei dagokienez, Kluba prozedura eta araudi zehatzak sortzeko prozesuan dago. Hala ere, horiek guztiak aipatutako hitzarmenaren jarraibideen eta erakundearen berdintasun-planaren menpe daude. Dena den, enpresa erabat malgua da lana familiarekin bateratzeko baldintzei eta langileen familiak zaintzeari dagokionez.

## 4.d. Prestakuntza eta karrera-plana

Bikaintasuna erdiesteko giltzarri bat da prestakuntza eta beraz, gai desberdinei buruzko ezagutzak metatze hutsetik harago, helburu jakin batzuei erantzun behar die, banakakoak nahiz kolektiboak izan daitezkeenak, baina, betiere, prestakuntza jasoko duten pertsonen partekatu behar dituztenak.

Hala, prestakuntzaren funtsezko eginkizuna da langile guztiek beren gaitasun intelektualetatik ahalik eta etekinik handia atera dezaten ahalbidetzea, gaitasun horiek gizabanakoarentzat zein taldearentzat onuragarriak izan daitezen. Helburua da langileen mentalitatea aldatzea, etengabe hobetzeko gogoia izan dezaten. Prestakuntzari eta karrerari buruzko plangintza bat ezartzen ari gara, langileek argi izan dezaten nolakoa izango den erakundean egingo duten ibilbidea, eta enpresaren eta langilearen arteko harremanak sendotzeko, harreman hori ahal bezain luzea izan dadin.

## 4.e. Gizarte-harremanak

### • Elkartzeko eskubidea:

Ez da langileen ordezkariarik izendatu eta beraz, komunikazioa zuzena izaten da.



## 4.f. Berdintasuna

### SD Eibarko berdintasun plana:

Erakundeak 2019an abiarazi zuen gizonen eta emakumeen arteko berdintasunerako lehenengo plana. Berariazko batzorde baten koordinazioaren pean, klubaren diagnostiko sakon baten bitartez hautemandako desorekak zuzendu nahi ditu proiektu horrek eta modu horretan, emakumeen eta gizonen arteko parte-hartze orekatu bat lortu erakundearen egitura eta jardunbide guztietan.

Klubaren helburuetako bat da emakumeen eta gizonen arteko berdintasunerako plan bat ezartzea. Hori dela eta, erakundeak konpromisoa hartzen du barne- zein kanpo-mailan berdintasunerako politikak ezartzeko, besteak beste, honako gaiak barne hartuta: bizitza pertsonala, familia eta lana bateratzea, bereizkeria prebenitzea eta genero edo sexuagatiko jazarpena saihestea.

### Aukera berdintasuna:

Eibarrek Genuine Ligan parte hartzen du 2018az geroztik. Proiektu sozial eta integratzaile horren bitartez, desgaitasun intelektuala (DI) duten Estatu osoko pertsonekin futbol-taldeak osatzen dira, elkarren artean lehiatzeko eta esperientziak partekatzeko. Era berean, erakunde armaginak PC talde bat dauka, garuneko paralisia duten pertsonen osatutakoa.

Gipuzkoako Foru Aldundiarekin eta desgaitasunen bat duten pertsonen aldeko zenbait erakunde eta elkarterekin sinatutako akordioen bidez, SD Eibar Fundazioak desgaitasuna duten hainbat langile barneratu ditu bere egituran, eta pertsona horiek lanean eta gizartean parte har dezaten ingurune atseginak eta irisgarriak sustatzen ditu.

## 4.g. Segurtasuna eta osasuna

### Laneko arriskuen prebentzioa:

31/1995 Legeak ezartzen duenez, gure enpresa biek (alegia, SD Eibarrek eta Fundazioak) prebentziorako plan bat dute. IMQ Prevención Klubeko mediku aseguru-etxeak aldizkako bisitak egiten ditu eta langile guztientzako prebentzio ikastaroak antolatzen ditu. Planak eguneratu dira, COVID-19aren ondoriozko arriskuak barne hartzeko.

### Urteko osasun-azterketa:

SD Eibarko eta Fundazioaren langile guztiei osasun-azterketa bat egiten die urtero IMQ-k.

### Lehen sorospeneiko ikastaroa:

Klubeko eta Fundazioaren langile guztiek lehen sorospenei buruzko oinarritzko ezagutza izan dezaten, aldizkako ikastaroak ematen dituzte Medikuzerbitzuek.



# 5. BARNE-KONTROLA ETA OSOTASUN KORPORATIBOA

5.a. Compliance

5.b. Kode etikoa

5.c. Ustelkeriaren eta eroskeriaren aurkako protokoloa

5.d. Kanal etikoa

5.e. Gardentasuna

5.f. Giza-eskubideak





## 5.a. Compliance

Klubaren compliance-jarduerak sozietateak berak barne- eta kanpo-eremuetan ezarritako arauak barne hartzen ditu (jardunbide hobeak, kode etikoa, ustelkeriaren aurkako arauak, laneko arriskuen prebentzioa, datuen babesa, kapital-zuriketa, etab.).

Arau horiek beteta, legez kanpoko jokabideak prebenitu eta saihestu daitezke. Gainera, arauon borondatezko onarpenak erakundearen kudeaketa eta gardentasuna indartzen laguntzen du.

## 5.b. Kode etikoa

Sociedad Deportiva Eibar, S.A.D. kirol-elkartearen Administrazio Kontseiluak 2016ko ekainaren 27an onartutako kode etikoak gure Klubaren jarduteko arauen multzoa eta gobernatzeko printzipio nagusiak biltzen ditu, Klubari lotutako pertsona guztiei aplikagarri zaizkienak.

Kode etikoak erakundearen funtsezko printzipio eta balio etikoak sistematizatzen ditu, jarraian adierazten den bezala:

### A. Osotasuna, Gardentasuna eta Etika

### B. Joko Garbia

### C. 0 Tolerantzia edozein ustelkeria-modurekin

### D. 0 Tolerantzia kirol-arloko bortizkeriarekin, diskriminazioarekin, jazarpenarekin, arrazakeriarekin, xenofobiarekin edo

### tolerantziarik-ezarekin

### E. Gogoa, Ahalegina eta Talde-lana

### F. Konfidentziasuna

Klubari atxikitako pertsona guztiek sinatu beharko dute kode etiko hau, eta berariaz adierazi beharko dute printzipio horien aurkako edozein jarduerari uko egiten diotela, eta legearen, moralaren edo printzipio etikoen aurkako metodoak edo gure Klubaren irudia edo izen ona lausotu edo kaltetu dezaketan jardunbideak saihestuko dituztela.

Kode etiko honek ezarritako printzipioak Klubaren Araudia Betetzeko Programaren Eskuliburuan jasotako protokoloen eta kontrol-mekanismoen bidez garatuko dira, hura onartzen den unean, eta Klubak etorkizunean barnera dezakeen beste edozein araren menpe garatuko dira.



## 5.c. Ustelkeriaren eta eros-keriaren aurkako protokoloa

SD Eibarrek hainbat jokabide-arau eta kontrol-neurri ezarri ditu protokolo honen bitartez, erakundeari zuzenean edo zeharka eragin edo kalte egin diezaiokeen ustelkeria-, eroskeria- edo sobornatze-modu oro prebenitzeko, hautemateko, horien kontra borrokatzeko eta, beharrezkoa bada, zigortzeko.

## 5.d. Kanal etikoa

### Salaketak:

2019/2020ko denboraldian, Klubak erakundetik kanpoko erabiltzaile baten salaketa jaso zuen kanal etikoan, elkarteko kide bati buruz.

Klubaren barne-araudian ezarritako ikerketa-prozesua gauzatu ondoren, intzidentzia konpondu zen, diziiplina-neurririk aplikatu beharrik gabe. Gainbegiratze eta Kontrol Organoak kudeatu zuen ikerketa-prozesua, alegia, Administrazio Kontseiluak compliance-arauekin lotutako alderdi guztien funtzionamendu egokia bermatzeko izendatutako organo kolegiatuak.

## 5.e. Gardentasuna

SD Eibarren nortasunaren ezaugarrietako bat da gardentasuna. Hala, Transparencia Internacional GKE-ren gehieneko nota eskuratu du erakunde horrek egindako azken sailkapenean, INFUT 2019 Gardentasun Txostenaren bitartez.

Ekimen horren bidez, kirol-sozietate anonimoaren informazio publikoaren maila hobetzen lagundu nahi du erakundeak, eta, aldi berean, gizarte-gardentasunaren maila hobetu eta erakundea herritarrengana eta gizarte-masara gehiago hurbildu.

Era berean, urteko kontuek eta finantzako egoera-orriek gardentasun hori berresten dute, izen handiko ikuskapen-enpresa multinazional batek emandako iritzien bermea baitute.

## 5.f. Giza-eskubideak

### Ustelkeriaren aurkako borrokarako mekanismoak:

Protokoloak ezarri dituen ustelkeriaren aurka borrokatzeko mekanismoen helburua da Sociedad Deportiva Eibar, S.A.D. kirol-elkarteari zuzenean edo zeharka eragin edo kalte egin diezaiokeen ustelkeria-, eroskeria- edo sobornatze-modu oro prebenitzeko, hautemateko, haren kontra borrokatzeko eta, beharrezkoa bada, zigortzeko jardunbide onak ezartzea.

### Kanal etikoa:

Compliance-arauak ez-betetzearen inguruko informazioa, dudak edo kontsultak jasotzeko sortutako komunikazio-kanala da. Gainbegiratze eta Kontrol Organoaren kanpo-aholkularia den erakunde batek kudeatzen du kanal etikoa.

### Datuen babesa:

Datuak Babesteko Erregelamendu Orokorra (DBEO) betetzen du Klubak, eta, datuak babesteko Europar Batasuneko araubide berriarekin egokituta dago. Horretarako, DPO bat izendatu du (Data Protection Officer), xedapen guztiak behar bezala betetzen direla zaintzeko.



# 6. INGURUMEN- POLITIKA

6.a. Ingurumen-inpaktoak eta  
horiek kudeaketa

6.b. Ingurumen plana –  
Etorkizuneko konpromisoa

6.c. Ingurumen-legeriaren betekizuna





## 6.a. Ingurumen-inpaktuak eta horien kudeaketa

Hona hemen Atxabalpe eta Ipuruako instalazioetako kontsumoak:

### IPURUA

**Gas Naturala:** 272.488.42 kwh

**Elektrizitatea:** 1.166.999 kwh

### ATXABALPE

**Gas Naturala:** 30.780 kwh

**Elektrizitatea:** 19.404Kwh

**Hondakinen kudeaketa:** SD Eibarrek hondakinak bereizten dituzten birziklatze-sistemak garatzen ditu Ipuruako estadioan eta Atxabalpeko kirol-hirian, ondorengo hondakinen arteko bereizketa eginez: papera, plastikoa, organikoa eta tonerra.

## 6.b. Ingurumen-plana – Etorkizuneko konpromisoa

SD Eibarrek, jasangarritasunaren aldeko konpromisoa gauzatze aldera, ingurumeneko partner batekin batera Ingurumenerako Plan Estrategiko batean lan egiteko beharra identifikatu du. Plan horrek funtsezko 3 gai hartuko ditu oinarri:

**Karbono-aztarna konpentsatzea:** 2020/2021 denboraldian, Klubaren karbono-aztarna neur-tuko da, oro har, gizonezko eta emakumezko le-hen taldeen nazio-mailako bidaien ondorioz sor-tutakoa. Neurketa horren arabera, beharrezkoak diren konpentsazio-ekintzak ezarriko dira.

**Hondakinen kudeaketa Ipuruako esta-dioan eta energia-efizientzia hobetzea:** Bir-ziklatze-sistema hobetzeko balizko ekintzak balioesteko, bi azterlan eskatuko dira: bir-ziklatze-sistemari buruzko bat eta energia-efi-zientziari buruzko beste bat.

**Etorkizuneko kirol-hiria:** Agintari eskudunek proiektua onar dezaten, ingurumen-inpaktua-ri buruzko zenbait azterlan aurkeztu behar izan dira: Soinu-inpaktuari buruzko azterlan bat, argi-inpaktuari buruzko azterlan bat eta paisaia-inpaktuari buruzko azterlan bat. Bes-talde, azpiegiturak sortu eta eraikitzerako or-duan, eraikinen energia-efizientzia hartuko da kontuan. Ingurumen-inpaktu txikiko instalazio jasangarriak aurreikusten dira.

## 6.c. Ingurumen-legeriaren betekizuna

Klubak ez du zigor edo isunik jaso indarreko ingurumen-legeria ez betetzeagatik.



# 7. HORNITZAILEAK ETA AZPI-KONTRATISTAK

7.a. Hornitzaileak

7.b. Tokiko garapena erraztea





## 7.a. Hornitzaileak

Departamentu bakoitzak bere hornitzaileen azterketa egingo du (bideragarritasuna, fidagarritasuna eta ospea). Kasu batzuetan, nahiko izango da hornitzailea identifikatzea, baina, arrisku handiagoko kasuetan edo hornitzailea ezezaguna denean, due diligence bat egin beharko da (Compliance).

Klubari atxikitako pertsona orok konpromiso-adierazpen bat sinatu behar du, bertan adierazitakoa irakurri eta ulertu duela eta xedatutako baldintzak betetzeko konpromisoa hartu duela egiaztatzeko. Hala, kode etiko honen eta haren menpeko Protokolo eta Kontrol guztietan zehaztutako jarraibide eta arau guztiak betetzeko konpromisoa hartzen du.

## 7.b. Tokiko garapena erraztea

SD Eibar oso errotuta dago bere udalerrian eta beraz, hiriko enpresek hornitutako ondasun edo zerbitzuak erabiltzen saiatzen da, edo horrelakorik ezean, eskualdeko edo inguruko herrietako enpresek hornitutakoak. Klubaren premisa da gizarteari ematea gizartearengandik jasotako guztia.

Azken hilabeteetan, Klubak hornitzaileei ordaintzeko politikak aldatu ditu krisi ekonomikoaren ondorioz. Horrenbestez, berehala ordaintzen ditu faktura guztiak, garai zail honetan enpresei gauzak errazteko.




# 8. BEZEROAK ETA KONTSUMITZAILEAK

8.a. Komunikazio-kanalak

8.b. Datuak babesteko politikak

8.c. Ziurtagiriak





# 8.a. Komunikazio-kanalak

Ondorengo eskeman komunikazio-kanalak zehazten dira:  
Gainera, nahi duen pertsona oro Klubarekin harremanetan jar daiteke telefo-  
no zenbaki orokorraren bidez, eta departamentuekin hitz egin, ondorengo lu-  
zapenak sakatuta:

- 1. Bazkidearentzako arreta eta sarrerak
- 2. Denda
- 3. Fundazioa
- 4. Prentsa
- 5. Administrazioa
- 6. Marketina
- 7. Protokoloa eta komunikazioa
- 8. Merkataritza
- 9. Obrak eta instalazioak

| AKZIODUNAK                                                                                                                                                                                                                                                                                                                             | ABONATUAK                                                                                                                                                                                                                                                                                                                     | ZALEAK                                                                                                                                                                                                                                                                                                                           | LAGUNARTEAK                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                  |
|----------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------|-------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------|----------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------|--------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------|
| <p><b>Akziodunen ataria:</b><br/>accionistas.sdeibar.com</p> <p><b>Helbide elektronikoa:</b><br/>accionistas@sdeibar.com</p> <p><b>Telefono zenbakia:</b><br/>943201831</p> <p><b>Bazkidearen arreta bulegoan:</b><br/>Ipurua Kalea, 2 20600 Eibar</p> <p><b>Egoitza sozialaren posta bidaliz:</b><br/>Ipurua Kalea, 2 20600 Eibar</p> | <p><b>Abonatuen ataria:</b><br/>abonados.sdeibar.com</p> <p><b>Helbide elektronikoa:</b><br/>socios@sdeibar.com</p> <p><b>Telefono zenbakia:</b><br/>943201831</p> <p><b>Bazkidearen arreta bulegoan:</b><br/>Ipurua Kalea, 2 20600 Eibar</p> <p><b>Egoitza sozialaren posta bidaliz:</b><br/>Ipurua Kalea, 2 20600 Eibar</p> | <p><b>EFC. Eibar Fan Club.</b><br/>www.efc.sdeibar.com</p> <p><b>Helbide elektronikoa:</b><br/>sdeibar@sdeibar.com</p> <p><b>Telefono zenbakia:</b><br/>943201831</p> <p><b>Bazkidearen arreta bulegoan:</b><br/>Ipurua Kalea, 2 20600 Eibar</p> <p><b>Egoitza sozialaren posta bidaliz:</b><br/>Ipurua Kalea, 2 20600 Eibar</p> | <p><b>Lagunarte berriak sortzeko web-orria:</b><br/>www.sdeibar.com/aficion/pen-<br/>yas/como-crear-una-pena</p> <p><b>Klubak lagunaarteekin lotutako kontuen kudeaketaz arduratzen den pertsona bat dauka eta helbide hau jartzen du harekin harremanetan jartzeko:</b><br/>arrate.fernandez@sdeibar.com</p> <p><b>Telefono zenbakia:</b><br/>943201831</p> |



## 8.b. Datuak babesteko politikak

Datuak Babesteko Erregelamendu Orokorra (DBEO) betetzen du Klubak, eta, datuak babesteko Europar Batasuneko araubide berriarekin egokituta dago. Horretarako, DPO bat izendatu du (Data Protection Officer), xedapen guztiak behar bezala betetzen direla zaintzeko.

## 8.c. Ziurtagiriak

**Hona hemen Klubak eskuratutako ziurtagiriak:**

### ISO 9001:

2015. Kalitatea kudeatzeko sistemak arautzen dituen nazioarteko araua da. Bezeroen beharrak eta itxaropenak asetzeko moduko kalitatezko kudeaketa bat egiteko beharrezkoak diren elementu guztiak dituzten enpresa publiko edo pribatu guztiei ematen zaie.

### ISO 37001:

2016, “Eroskeriaren aurkako kudeaketa sistemak”. Eroskeriari aurre egiteko eta enpresa-kultura etikoa sustatzeko nazioarteko araua da. Horrez gain, arau honen bitartez Klubak akziodun eta bezero potentzialei erakusten die munduan onartu diren eroskeriaren aurkako jarduerekin konprometitutako erakundea dela. Eta ez bere

eragiketetan soilik, baina baita bere balio-kate osoko transakzioetan ere.

### UNE19601:

2017, “Compliance penala kudeatzeko sistema”. Arau honen helburua da legeria betetzetik haratago joatea eta klubari delituak prebenitzen eta arrisku penala murrizten laguntzea, eta, horrekin batera, kultura etikoa eta betetzekoa bultzatzea.



# 9. GIZARTE POLITIKAK

9.a. Fundazioa

9.b. Proiektu nagusiak

9.c. Ekarpena Garapen Jasanga-  
rriaren Helburuei






# 9.a. Fundazioa

SD Eibar Fundazioa Klubaren zerbitzuan jarduten duen erakunde bat da, haren eginkizun soziala kudeatzen duena eta ondorengo xedeak betetzeko lan egiten duena:

- Kirol-, kultura-, heziketa- eta ingurumen-arloko eskualdeko gizarte-proiektuak egitea eta bultzatzea.
- Klubaren balioak zaintzea eta Fundazioaren ekintza guztietan islatzen direla egiaztatzea. Gure ekintzek gizarte-masan duten eraginaren jakitun, funtsezkotzat jotzen dugu gure balioak gogoan hartzea.
- Kluba eta Fundazioa gizartera gerturatzea eta horretarako, gure balioekin lerrokatutako ekintza zehatzak abiatzea, Fundazioaren ildo estrategikoen barruan.

Fundazioaren proiektuak 5 eremu estrategikotan daude lerrokatuta:





## 9.b. Proiektu nagusiak

Fundazioak 5 eremu ezberdinetan jarduten du eta hauek dira bere proiekturik garrantzitsuenak:

### KIROL-EREMUA

#### Gure Balioak:

2018/2019. denboraldiaz geroztik, SD Eibarko Oinarrizko Futbolak balioak harrobiko taldeetan ezartzeko proiektu bat garatzen ari da. Proiektu horrek kirolariaren prestakuntzari beste ikuspuntu batetik heltzeko aukera eskaintzen du, kirol-arloan jokatzeko eredu bat transmititzeaz harago, balioen transmisioaren bitartez hazkunde pertsonala bultzatuz.

Horretarako urritik martxora balio bat lantzen da hilabete bakoitzean:

**Urria** - Errespetua

**Azaroa** - Konpromisoa

**Abendua** - Diziplina

**Urtarrila** - Apaltasuna

**Otsaila** - Elkartasuna

**Martxoa** - Zintzotasuna

Balio ezberdin bat lantzen da hilero, ezarritako zenbait parametroren arabera ebaluatzen dena. Hala, parametro horiek kontuan hartuta, jokariaren jarraipen bat egiten da eta nota bat ematen zaio hilabetearen amaieran. Azken notaren arabera, jokariak SD Eibarren jarraituko duen ala ez zehazten da. Beraz, ohitura onik gabe kirol-mailak ez du zehaztuko jokariaren jarraitutasuna; bai, ordea, ohitura onek haren errendimendua hobetzen dutenean kirol-arloan zein maila pertsonalean. Azken batean, balio etiko eta sozialei buruzko ezagutza eskaintzen zaie jokalariei.

#### Egokitutako futbola:

SD Eibar Fundazioak futbol egokituko bi txapelketatan lehiatzen duen talde bat dauka. Alde batetik, LaLigak antolatzen duen Genuine Ligan parte hartzen du, hau da, desgaitasun intelektuala duten pertsonentzako txapelketan. Bestalde, taldearen beste atal batek Garuneko Paralisiaren Ligan parte hartzen du, Garuneko Paralisia eta Hartutako Kalte Zerebrala duten Pertsonen Espainiako Kirol Federazioak antolatutakoa. Taldearen atal biek elkarrekin entrenatzen dute. Genuine Ligak eta Garuneko Paralisiaren Ligak 4 jardunaldiko iraupena dute, eta partidak lurraldeko toki ezberdinetan jokatzen dira.

Gorputz teknikoak helburu batzuk ezarri ditu denboraldiari begira, jokariaren errendimendua eta forma fisikoa hobetzeko. Erantzukizun sozialeko txapelketarik integratzaileena da, eta munduan aitzindaria.



## EIBAR TXIKI

### Proiektuak eta ekintzak Eibarko eta eskualdeko ikastetxeekin:

Zale txikienengana hurbiltzeko eta haien hezkuntza-proiektuan parte hartzeko, Klubaren eta ikastetxeen arteko lotura ezartzeko bi proiektu diseinatu ziren.

Alde batetik, Ipurua bistatzeko gonbidapena bidali zitzaien eskolei. Haurrak estadiora joan, tour txiki bat egin eta opari bat jaso zuten.

Bestalde, gizonezkoen eta emakumezkoen lehen taldeetako zenbait jokalaria eta Klubaren gorputz teknikoko eta zuzendaritzako hainbat kide ikastetxeetara joan ziren “Euskararen Baloia” proiektuaren esparruan. Erakundearen Euskararen Planaren parte da proiektu hori.

### Kampus:

Urtero, Fundazioak 15 eguneko campus bat antolatzen du udan zehar, Eibarko eta eskualdeko umeei eskola-ikasturtearen osagarria den prestakuntza emateko. Campusak Gure Balioak proiektua hartzen du oinarri eta Klubaren balioak lantzen ditu.

## KULTURA ETA INGURUNE SOZIALA

### SD Eibarren eskola Piuran, Perú – Egoaizia:

Egoaiziak Peruko Piurako eskualdean abiarazitako proiektuak Pueblo Nuevo de Marayko (Santa Catalina de Mossa) haurren eta gazteen bizi-kalitatea hobetzea du helburu, kirol-eskola baten bitartez. SD Eibar Fundazioak egiten duen ekarpen ekonomikoak staff teknikoa ordaintzeko (bi entrenatzaile) eta kirol-materiala erosteko balio du.

Egoaiziak, oro har, haurren zainketari buruzko sentsibilizazio- eta motibazio-

lana egiten du haien familiekin eta batez ere, osasunean eta hezkuntzan jartzen du arreta. Hala, Santa Catalina de Mossako Futbol Ligako presidenteak eta hezkuntza-erakunde ezberdinetako zuzendariek gurasoekin egindako zenbait bileratan parte hartu dute, gurasoak umeen zainketari buruz sentsibilizatze aldera.

### Euskera Plana:

SD Eibar Fundazioak konpromiso sakona du euskararekiko eta argi dauka berebizikoa dela gure hizkuntza egunero zaindu eta erabiltzea. Horregatik, Fundazioak hainbat ekimen bultzatu zituen 2018an eta 2019an zehar. Horien artean garrantzitsuena 2016an EMUN aholkulari independentearen eskutik martxan jarritako Euskararen Plana bultzatzen jarraitzea izan da.

Era berean, 2019an era aktiboan parte hartu genuen Korrikan eta euskal hizkuntzaren aldeko beste hainbat jardueratan; esaterako, “Euskararen Baloia”. Ekimen horren helburua



da hizkuntza eskola-esparruan bultzatzea eta horretarako, emakumezkoen eta gizonezkoen lehen taldeetako jokalariek Eibarko ikastetxe guztiak bisitatu dituzte, kirolean eta jokoan euskararen erabilera bultzatzeko asmoz.

## HEZIKETA

### Robotika-ikastaroa:

Beste urte batez, 8 eta 16 urte bitarteko neska-mutilei bideratutako robotika-ikastaro arrakastatsuak eskaini dira. Horrela, astero, ia 40 lagunek robotikako prestakuntza jasotzen dute Ipuruako Formakuntza Zentroko instalazioetan.

### Irasuegi bekak:

Armeria eskolaren Nazioartekotzerako Irasuegi bekak emateko egindako ekarpenaren helburua da eskola horretako ikasleen atzerriko egonaldiak bultzatzea. Ikasleek nazioarteko lan-esperientzia eskuratzen dute beka horien bitartez.

## INSTITUZIONALA

### Museoa:

Klubaren historia ezagutarazteko, trofeoak erakusteko eta jendeari erakunde armaginarekin 80 urteko ibilbidean zehar bidaiatzeko aukera eskaintzeko helburuz, SD Eibarren Museoa zabaltzeko lanak abiatu dira. Horretarako, Ekialdeko Tribunako instalazioak egokitzen eta taldearen datu historikoak, trofeoak eta oroitzapenak biltzen ari gara.

### Klubaren memoria historikoa (artikuluak, argazki-fondoa...):

Museoaz aparte, Klubaren historia zaintzeko eta ezagutarazteko beste modu batzuk daude. Hala, Benigno Plazaolaren argazki-fondoaren bitartez eta Klubaren artikulua historikoak aldizka argitaratuz, jarraitzaile armaginei haien taldearen lorpenak gogoraraztea bilatzen da.

Benigno Plazaola argazki-fondoak 1940ko eta 1980ko hamarkaden arteko 60.000 iruditik gora dauzka, webgunean, museoan edo erakusketetan erabiliko direnak.



# 9.c. Ekarpena Garapen Jasangarriaren Helburuei

SD Eibarrek Garapen Jasangarrirako 2030 Agendarekin konpromiso irmoa hartu du aurtengo denboraldian. Horretarako, lehen diagnostiko gisa, garapen jasangarriko helburu horiei lotutako erakundearen ekintzak identifikatu dira. Etorkizunera begira, helburua da ekintza horiek pixkanaka Plan Estrategikoan eta Kudeaketa Jasangarrirako Sisteman barneratzea.

| GJH                               | NAZIO BATUEN XEDE-KODEA                                                                                                                                                                                      | SD EIBARREN EKINTZA                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                        |
